

BIZI NAI!

*Orrila iritxi gabe oraindik, eta dena dakust inguruan
bizi nai utsean. Illabeteak eta urteak bai doaztela laster,
xixtakoa, z. Etxaldea eder ta kolo; ez pur-pur ikusiz, ba>erri-
tar bertsolariari irudimena zaio osorik arrotu, ta bat-beteko
kantuari eran dio pozaren mende.*

Doiñu: «Donostiako iru damatxo...».

Abar orizkaz apain-apaiña
ager zait udaberria,
zelai, soro ta bide-muiñoan
zer-nai zabal da bizia,
—eta bizia maite dut,
nik nai ez iltzerik—
zer-nai zabal da bizia.

Illun ondoko argi dizdizak
margoztu ditu mendiak,
t'oiar zar beltzak, ito itoka,
bota dizkigu nagiak
—eta bizia maite dut,
nik nai ez iltzerik—,
bota dizkigu nagiak.

Etxe gaiñeak gorri dauzkagu,
irri barreka leioak,
zillar-lits duzun itxas-ertzari
eder zaizkio margoak
—eta bizia maite dut,
nik nai ez iltzerik—,
eder zaizkio margoak.

Ametsez noa bidean zear
dena dutala irriz biran,
goiza doakit lanean murgil

urruna nairik auteman
eta bizia maite dut,
nik nai ez iltzerik—,
urruna nairik auteman.

Gazte-garaian atzo nintzala,
nola doazten urteak!
Ille zurixkak ditut buruan,
ez gutxi ere nereak
eta bizia maite dut,
nik nai ez iltzerik—,
ez gutxi ere nereak.

Eguneroko lan alorrean
nork du nik aiña naitasun?
Badut emazte, baditut aurrak,
eta soiñean osasun
—eta bizia maite dut,
nik nai ez iltzerik—,
eta soiñean osasun.

Goizantz amari diot igorri
nere ezpain bien lorea;
ori bazkatu opa duela
zelan dabillen erlea!
eta bizia maite dut,
nik nai ez iltzerik—,
zelan dabillen erlea!

Irudimenez lena t'oraiña
elkar oi ditut ederki,
urteko aro ta ibilteak
berriz nabilte dardarti
eta bizia maite dut,
nik nai ez iltzerik—,
berriz nabilte dardarti.

Izadi-zori, izadi eder,
oa beti zoragarri!
Aspaldi zuri zor nizun sari
gaur gogo dizut ekarri
—eta bizia maite dut,
nik nai ez iltzerik—,
gaur gogo dizut ekarri.

Beude millaka loreak dindil,
nik laztanaren zirtzilo.
Oro nai nuke nere barnean
artu neretzat atxílo
—eta bizia maite dut,
nik nai ez iltzerik—,
artu neretzat atxilo.

Goizantz emakor, suspergarria,
ezkon-andrea emanik,
ekartzin, otoi, aurretan aunitz,
ni bizi-miñez aserik
—eta bizia maite dut,
nik nai ez iltzerik—,
ni bizi-miñez aserik.

NEKAZARIEN ZAINDARIA

Ixidor deunaren eguna; urtero ospatzen dugu, or beeko komentuko elizan. Guk ere badugu fedea, eta eskerrak eman bearra: ainbat doai ta mesede artzen ditugu Jainko onaren eskutikoak. Iñoiz ere ez dugu eskertzarreko izan bear.

Doiñu: «Erreguetan ari nintzala...».

(**Boga, boga**, 70 orr.) .